

Kultur txangoak



Martxotik urrira arte
+55 jarduera

Inguruko lekuetako kultura ezagutzeko, bertatik betara bisita egitea baino modu hoberik ez dago. 1, 2 edo 3 eguneko kultur txangoen programa honi esker, 55 urtetik gorakoek kultura ardatz duten hainbat txango egiteko aukera izango dute. Logroño, Guardia edo Albarracín eta Teruel izan dira azken denboraldietan aukeratu diren helmugetako batzuk. Ez galdu aukera hau eta ezagutu itzazu aurtengo proposamenak.

Baldintza orokorrak

Izen-emateak Sokaren Etxean egingo dira, hurrenkera errespetatuz. Pertsona bakoitzak bi lagunen izena emateko aukera izango du, gehienez ere.

Ordainketa edozein banku-txartelarekin egingo da, eta txartelik ez duenari kontu-zenbaki bat emango zaio, erreserba egin duen egunean abonua egin dezan. Izena emanda dagoenak azkenean ezin badu irteerara joan, ordaindutako zenbatekoa itzuliko zaio, betiere antolakuntzak eskatutako gutxieneko aurrerapenarekin abisatzen badu (kontsultatu).

Txango bakoitza egin ahal izateko, antolakuntzak zehaztutako gutxieneko parte-hartzaile kopurua bete beharko da. Antolakuntzak txangoa bertan behera uzteko eta ezinbesteko kasuetan txangoa aldatzeko eskubidea dauka. Izena eman duen pertsona ez bada hitzartutako orduan agertzen, ez zaio dirurik itzuliko.